

## **IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEAREN ZERBITZUKO LANGILEAK ALDI BATERAKO KONTRATATZEA ARAUTZEKO ERREGELAMENDUA ONARTZEARI BURUZKO AURRETIKO HERRI KONTSULTA**

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera, eta araudi-proiektu bat egin aurretik, Iruñerriko Mankomunitateko langileak aldi baterako kontratatzea arautzeko erregelamendu bat onartzeko ekimenaren gainean aurretiko herri-kontsulta bat egingo da, etorkizuneko arauak uki ditzakeen pertsonen iritzia biltzeko helburuarekin.

Nahiz eta egin nahi den arautzeak antolaketa-izaera ere baduen, giza baliabideen barne-kudeaketari dagozkion alderdietan eragina izatean, eta, bere kasuan, 39/2015 Legearen aipaturako 133. artikuluan, 4. atalean, aurreikusitako bazterte-kasuetakoren batean sar daitekeen, egoki jotzen da ekimenaren gainean aurretiko herri-kontsulta egitea, gardentasuneko, parte-hartzeko eta segurtasun juridikoko printzipioak indartzearen onerako, eta bai etorkizuneko xedapenaren bidez heldu nahi zaien behar eta arazoak behar bezala identifikatzea laguntzeko ere.

Eragin horretarako, informazio hau azaltzen da:

### **a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak**

Egun, Mankomunitatean aldi baterako langileak kontratatzeak ez du erregulazio sistematizaturik, bateraturik eta osorik, eta, nagusiki, ondoz ondoko deialdietan sartutako irizpideetan oinarritzen da. Horrek homogenotasunik eza ekar dezake kudeaketa-irizpideetan, eta bai ziurgabetasuna ere deitzeko, kontratatzeko eta zerrendetan egoteko prozeduretan.

Halaber, aldi baterako kontratazio-prozesuei segurtasun juridiko, gardentasun eta objektibotasun handiagoa eman behar zaie, enplegu publikoa eskuratzean berdintasuneko, merezimenduko eta gaitasuneko printzipioak errespetatzea bermatuz.

Orobat, erregulazio sistematizaturik ez edukitzeak bereziki sentikorrak diren alderdien kudeaketa zaildu dezake, hala nola deien sistemak kudeatzea, uko-egiteak kudeatzea, prestasun-egoerak zehaztea eta erakundearen beraren edo beste administrazio publiko batzuen zerrendak erabiltzean irizpide homogeneoak aplikatzea.

Beste alde batetik, egiaztatzen da aldi baterako zerrendak aplikatzeko erregimena argitu behar dela, zerrenda horiek erabiltzean interpretazio desberdinak ekiditeko eta kudeaketa koherente eta homogeneoa ziurtatzeko xedearekin.

### **b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den**

Berriazko erregelamendu bat onestea beharrezkoa da aldi baterako kontratazio-zerrendak eratu, antolatu eta kudeatzea arautuko duen araudi-esparru argi eta egonkorra ezartzeko, administrazio-jardun arinago, eraginkorrago eta homogeneoago baterako bidea emanez.

Halaber, onartzea egoki jotzen da, zerrenda horien kudeaketa Mankomunitatearen antolaketa-beharretara egokitzeko xedearekin, interes publikoaren eta zerbitzuak ematean hobetzearen onerako.

Alde horretatik, Mankomunitateko lehendakariaren martxoaren 17ko 160/2026 Ebazpenaren bidez (68. zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara emana, 2026ko apirilaren 9an), 2026ko ekitaldiari dagokion enplegu-eskaintza publikoa onetsi da. Eskaintza horrek barne hartzen du langile funtzionarioen plaza berriak sortzea, plaza horietan langileak aldi baterako kontratatuzko zerrendak onartzea ere ekar dezaketenak berekin. Inguruabar horrek agerian jartzen du kontratazio-zerrendak kudeatzeko sistema ordenatu, garden eta homogenea edukitzea komenigarria dela, plaza horiek betetzetik eta zerbitzuak antolatzen erator daitezkeen langileen aldi baterako beharrei modu eraginkorrean arreta ematea ahalbidetuko duena.

### **c) Arauaren helburuak**

Etorkizuneko arauaren helburu nagusiak hauek dira:

- Langileak aldi baterako kontratatuzko prozedura arautzea.
- Zerrenden antolaketa- eta indarraldi-irizpideak ezartzea.
- Deien eta kontratazioen sistema definitzea.
- Zerrendak osatzen dituzten pertsonen administrazio-egoerak zehaztea (prestasuna, etenaldia, baztertzeta, etab.).
- Publizitate-, gardentasun-, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak bermatzea zerrenden kudeaketan.
- Kontratazio-zerrenda mota desberdinak eta enplegu publiko finkoa eskuratzeko hautaketa-prozesuekin eduki dezaketen interrelazioa arautzea.
- Deien sistema argi eta homogenea ezartzea, barne sartuta hedabideak, erantzun-epaiek eta eskaintzen tipologia.
- Gorabeherak kudeatzeko erregimena definitzea (uko-egiteak, desaktibazioak, kanporatzeak eta beste egoera batzuk), aplikazio objektiboa eta uniformeak bermatuz.
- Albi baterako kontratazio-zerrendak aplikatzeko erregimena argitzea, erabiltzean interpretazio desberdinak ekiditeko helburuarekin, eta kudeaketa koherentea eta homogenea ziurtatzea.

### **d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatuak eta ez-erregulatuak**

Aukera ez-erregulatuak moduan, egungo egoera mantendu ahal izango litzateke, ondoko deialdietan sartutako barne-irizpideetan oinarritutakoa, eta bai beste administrazio publiko batzuen arauetara bidaltzean oinarritutakoa ere.

Halaber, zenbait alderdiren erregulazio partziala egin ahal izango litzateke, barneko jarraibideen edo akordioen bitartez.

Edonola ere, aukera horiek ez dute bermatzen segurtasun juridikoko, gardentasuneko, homogeneotasuneko eta egonkortasuneko maila berbera administrazio-jardunean, bereziki alderdi batzuetan, adibidez, deien sistemetan.

Hori dela-eta, uste da xedapen orokor bat onestea aukera egokiena dela gai hau era integral edo osoan arautzeko.

### **e) Herri-kontsultaren hartzailak:**



---

Rincón de la Aduana, 12 C.I.F.: P31120708  
31001 Tel: 948 42 32 42  
PAMPLONA-IRUÑA www.mcp.es  
mcp@mcp.es

Herritarrak, oro har.